



ABANDOKO  
SAN BIZENTE MARTIRIAREN  
PARROKIA

PARROQUIA  
DE SAN VICENTE MÁRTIR  
DE ABANDO

Done Bikendi plaza 3. 48001 Bilbao (Bizkaia)  
T. 94 423 12 96  
parroquia@sanvicentemartirdeabando.org

## EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Nola ikusten duzu senidearen begiko lasto-izpia eta zeure begiko hazaz ohartzen ez?”

2025eko martxoaren 2a  
Urteko 8. igandea (C)

### Lukas 6, 39-45.

Eta parabola bat ere esan zien: «Itsua itsuaren gidari izan ote liteke? Ez ote dira biak zulora eroriko? Ikaslea ez da irakaslea baino gehiago, baina ongi eskolaturiko ikaslea irakaslea adina izango da.

«Nola ikusten duzu senidearen begiko lasto-izpia eta zeure begiko hazaz ohartzen ez? Nola esan diezaiokezu senideari: “Adiskide, utzi begian duzun lasto-izpia ateratzen”, zuk zeurean duzun haga ikusten ez duzula? Itxurazale hori! Kendu lehenengo zeure begitik haga, eta orduan ikusiko duzu garbi, senidearen begitik lasto-izpia ateratzeko.

«Ez dago zuhaitz onik fruitu txarra ematen duenik, ezta zuhaitz txarrik ere fruitu ona ematen duenik. Bere fruituetatik antzematen zaio zuhaitzari; ez da arantzatik pikurik biltzen, ezta sasitik ere mahatsik hartzen. Ona denak ona ateratzen du bere barneko ontasun-altxorretik; eta gaiztoak gaitza bere gaiztakeri altxorretik. Ahoak esan, bihotzari gainezka darionetik esaten baitu».

“Adiskide, utzi begian duzun lasto-izpia ateratzen, zuk zeurean duzun haga ikusten ez duzula?”

## GELDIALDI BAT EGIN

*Jose Antonio Pagola*

Gure herriek eta hiriek aldeko ingurugiro koxkorra eskaintzen diote jendeari, isiltasun eta bake apur baten bila dabilenean, bere buruarekin eta Jainkoarekin topo egin ahal izateko. Ez da erraza ihes egitea etengabeko builari eta mota guztietako deien eta mezuen oldar jarraikiari. Bestalde, eguneroko kezkek, problemek eta presak batetik bestera garabiltzate, geure buruaren jabe izateko aukerarik eman gabe.

Norberaren etxean ere, telebistak hartua eta askotariko tiranduren eszenatoki bihurtua delarik, ez da erraza behar-beharrezko sosegua eta barne-bildura aurkitzea, nork bere buruarekin topo egiteko edota Jainkoarekin gozo-gozo atsedeteko.

Eta hona: hain juxtu, isiltasun-, bildura- eta otoitz-lekuak inoiz baino beharrezkoagoak ditugunean, fededunak itxirik edukitzen ditugu sarritan geure tenpluak eta elizak egunaren zatirik handienera.

Ahaztu egin zaigu geldialdi bat egitea, minutu batzuetan geure presa etetea, geure tirandurei une batzuetan ihes egitea eta toki sakratu bateko isiltasunak eta lasaitasunak har gaitzaten uztea. Gizon-emakume asko harrituko litzateke aurkitzean ezen aski dela, sarritan, geldialdi bat eta isilalditxo bat egitea espiritua baretzeko eta argitasuna eta bakea berreskuratzeko.

Zein beharrezkoa dugun gaur egungo gizon-emakumeok isiltasun hori bizitzea; geure buruarekin topo egiten lagunduko liguken, askatasuna berreskuratzeko eta geure barne-energia guztia berregiteko.

Builari eta zalapartari emanak bizi garelarik, ez dugu barruntatzen ere isiltasunaren eta bakardadearen onura. Albisteen, irudien eta zirraren irrikaz beterik gaude, eta ahaztu egin zaigu ezen geure izatearen hondoenera entzun dezakegunak bakarrik aberasten gaituela zinez.

Barne-isiltasun hori gabe, ezin entzun diogu Jainkoari, ezin antzeman diogu beraren presentziari geure bizitzan eta ezin hazi gara geure barnetik gizaki eta fededun bezala. Jesusen hitzetan, «bere bihotzean altxor egina duen ontasunetik ateratzen du ongia» pertsonak. Ongia ez da ateratzen gugandik berez. Landu egin behar izaten dugu, geure bihotzaren barnean hazarazi egin behar izaten dugu. Jende asko hasiko litzateke bere bizitza eraldatzen, geldialdi bat egiten ikasiko balu, bere bihotzaren isiltasunean sustatzen duen on guztia entzuteko.